GOIKO AMONA ETA BEHEKO AMONA

Testua eta irudiak: **TOMIE DEPAOLA**

Itzulpena: **EVA LINAZASORO**

Kartoizko azala. 20,4 x 25,4 cm. 40 or. 15,00 €

Goiko amona eta beheko amona (euskara)
ISBN 978-84-9172-269-4. Album irudidunak. Gaur egunko klasikoak.
Abuela de arriba y abuela de abajo (gaztelania)
ISBN 978-84-1343-150-5. Álbum ilustrado. Clásicos contemporáneos.
Avoa de arriba e avoa de abaixo (galegoa)
ISBN 978-84-1343-149-9. Álbum ilustrado. Tras os montes.
L'àvia de dalt i l'àvia de baix (katalana)
ISBN 978-84-18558-43-6. Àlbum il.lustrat. Clàssics contemporanis.
A avó lá de cima e a avó lá de baixo (portugesa)
ISBN 978-989-749-143-6. Álbum ilustrado. Livros para sonhar.

Tomimyk, ttikia zenean, amona bat eta birramona bat zituen, eta biak ala biak izugarri maite zituen.
Igande arratsaldero joan ohi zen Tommy familia osoarekin haien etxera bisitan. Amona behean egoten zen beti...
Birramona, berriz, goian egoten zen ohean, ez bait zituen alferrik laurogeita hamalau urte...

Lehenik, 1973an argitaratua, Tomie dePaolak bere haurtzaroko oroitzapenei buruz idatzitako lehen liburua dugu.
Lan autobiografikoa da, belaunaldien arteko gaiaz eta bizitzako oinarrizko alderdiei buruz ari dena: nahitasunak, familia, maite ditugunen heriotza, etab.

Kontakizun samur honetan denboraren joana bi ikuspegietatik aurkezten zaigu, egunerokotasunetik eta existentzialismotik; ondorioz, zahartzaroaren gaia jorratzen du: urteen poderioz bakarrik gainditzen den misterioa. Pertsonaia nagusiak, bestalde, bere burua dolualdi baten aurrean ikusiko du, hazten lagunduko dion prozesua, goizago nahiz beranduago guztiok bizi beharko duguna.

Dagoeneko haur literaturan klasiko bihurtu den ipuin honetarako, idazleak irudi figuratiboak, kolore leunekoak eta aurrez aurrekoak erabiltzen ditu, horrela oroiminez beteriko giro amultsua lortzen duelarik.







- **Gaia:** familia, amonak eta birramonak, nahitasunak, memoria, denboraren joana, maite ditugunen heriotza.
- **Adina:** 5 urtetik aurrera.
- **Alderdi azpimarragarriak:** zahartzaroa, dolualdia, "Oliver Button poxpolin bat da" liburuaren egilearena.
- **Liburuaren aurrerapena:** https://issuu.com/kalandraka.com/docs/goiko-amona-eusk

Tomie dePaola (Meriden, Connecticut, 1934 –Lebanon, New Hampshire, 2020)

Brooklyngo Pratt Institutuan Arte Ederretan graduatu ondoren, Kalifornia eta San Frantziskon osatu zuen bere formakuntza akademikoa. Bi hamarkadetan zehar arte irakasle bezala aritu zen hainbat ikastetxetan, harik eta 70. hamarkadan erretiroa hartu eta liburuak idazten eta irudiztatzen hasi zen arte. 1965. urtean argitaratu zen berak irudiztatutako lehen liburua; orduz geroztik, 260 lanetik gora egin ditu haurrentzat. Hartu dituen sarien artean honako hauek gailentzen dira: 1976ko Caldecott eta 2000ko Newbery dominak, 1983 eta 1987ko Golden Kite sariak, 2000.eko Jeremiah Ludington Memoriala, 2011ko Children's Literature Legacy saria, eta 1990eko Hans Christian Andersen sarirako izendapena.
https://www.tomie.com.

www.kalandraka.com
comunicacion@kalandraka.com

www.Pamiela etxea.com
soltxate@pamiela.com